

Funtsezko elkarteak

Gure enpresaren funtsezko elkarteak hornitzaile espezializatu eta bazkide estrategikoen sare bat dira. Sare horrek gure negozio-ereduaren funtzionamendua bermatzen du: material funtsezkoen hornidura ziurtatuz, kostuak optimizatuz, arriskuak murriztuz eta gure produktuaren eskalagarritasuna ahalbidetuz.

Aiman GZ S.L. (Madrilen)

- Zer hornitzen digute: polo positibo eta negatiboak dituzten iman bereziak, gure arbel magnetikoaren funtzionamendurako ezinbestekoak.
- Zergatik:
 - Magnetika-teknologia ez dugu guk ekoizten; beraz, kanpoko espezializazioaren bidez lortzen ditugu gure produkturako baliabide kritikoak.
 - Kalitate-bermea eta hornidura jarraitua eskaintzen dituzte, ekoizpen-eten arriskuak murriztuz.
 - Imanen ekoizpena externalizatzek azpiegitura-kostuak aurrezten ditu eta gure negozio-eredua optimizatzen laguntzen du.
- Logistika: garraio-kostuak kontuan hartu behar dira (190–200 € inguruko gastua bidalketa bakoitzean).

Caype (Vitoria-Gasteiz)

- Zer hornitzen digute:
 - Pizarrak, pizarra magnetikoak, arbeletarako euskarriak, edukazio-materiala eta gure produktua ontzeko edo osatzeko erabil daitezkeen hainbat elementu.
- Zergatik:
 - Tokiko hornitzailea izanik, entrega-denborak laburragoak eta logistika-kostuak txikiagoak dira.
 - Eskola-inguruneetarako pizarra eta material magnetikoetan esperientzia dutenez, kalitatea eta egokitasuna bermatzen dute.

- Tokiko alor ekonomikoa indartzen du eta gure hornikuntza-katearen erresilientzia handitzen du, kanpoko mendekotasuna murriztuz.
- Kokapena: Vitoria-Gasteiz (Euskadi).

Supermagnete GmbH (Europa)

- Zer hornitzen digute: neodimio-imanak, zinta magnetikoak, xafla itsaskor magnetikoak eta gure produktua hobetzeko edo osatzeko baliagarriak diren bestelako pieza magnetikoak.
- Zergatik:
 - Bere katalogo zabala erabilia, alternatiba eta osagarri magnetiko ugari lortzen ditugu.
 - Hornidura-ahalmen handia dutenez, eskalagarritasuna eta stockaren segurtasuna bermatzen laguntzen dute.
 - Bigarren hornitzaile sendoa izateak arriskuak murrizten ditu, batez ere lehengai kritikoetan.

Tokiko ferreteria industrialak (Vitoria-Gasteiz)

(adibidez: Echebarria Suministros Industriales, Suministros Zadorra...)

- Zer hornitzen digute: tornilleria, herrajes, egitura-osagai metalikoak, muntaketa-tresnak eta produktuaren fabrikazio edo konponketarako behar den material osagarria.
- Zergatik:
 - Muntaketa eta prototipo-aldaletan beharrezkoak diren pieza estandarrak tokian bertan eskuratzeko aukera ematen dute.
 - Tokiko presentziak entrega-denborak eta kostuak murrizten ditu, eta ekoizpen-malgutasuna handitzen da.